

**ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOKO OINARRIZKO IRTENBIDEAK ELKARRI EMATEKO
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAK
ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREKIN 2017KO MARTXOAREN 24AN ETA
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN 2018KO ABENDUAREN 5EAN SINATU DITUEN LANKIDETZA-
HITZARMENEKIKO ATXIKIMENDU PROTOKOLOA**

ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOKO OINARRIZKO IRTENBIDEAK ELKARRI EMATEKO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAK ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORREKIN 2017KO MARTXOAREN 24AN ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN 2018KO ABENDUAREN 5EAN SINATU DITUEN LANKIDETZA-HITZARMENEKIKO ATXIKIMENDU PROTOKOLOA

Igor Iturain Iburguren jaunak, Urola Kostako Udal Elkarteko lehendakariak, Urola Kosta Udal Elkartearen ordezkartzan, hauxe

ADIERAZTEN DU:

Udal Elkarteak, 2019ko apirilaren 1eko B19/0034 lehendakariaren ebazpenaren bitartez, erabaki du administrazio elektronikoaren oinarrizko irtenbideak elkarriz emateko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin sinatutako lankidetzaren hitzarmen hauekiko atxikimendua eskatzea. Hain zuzen ere:

- Estatuko Administrazio Orokorrarekin 2017ko martxoaren 24an sinatutako lankidetzaren hitzarmenarekiko, lehenengo klausularen 2. atalean ezarritakoari jarraituz. Hitzarmen hori 2017ko apirilaren 21eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 76 zenbakikoan, argitaratuta dago.
- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin 2018ko abenduaren 5ean sinatutako lankidetzaren hitzarmenarekiko, lehenengo klausularen 2. atalean ere ezarritakoari jarraituz. Hitzarmen hori 2018ko abenduaren 21eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 245 zenbakikoan, argitaratuta dago.

Urola Kosta Udal Elkarteak hitzarmena ezagutu eta erreparorik gabe onartzen du, harekiko atxikimenduari dagozkion alderdi guztietan; horrez gain, konpromisoa hartzen du hitzarmenean jasotako betebeharrak betetzeko, alderdi sinatzaileek ematen dituzten administrazio elektronikoaren oinarrizko irtenbide teknologikoak (bigarren klausulan zerrendatu dira) edo etorkizunean eguneratu edo aldatzen direnak eskuratzeari eta erabiltzeari dagokienez. Horrez gain, bere eskumeneren arloan, bere gain hartzen ditu hitzarmenean Gipuzkoako Foru Administrazioarako ezarritako betebeharrak.

Horren guztiaren ondorioz, honako hau

ESKATZEN DU:

Urola Kosta Udal Elkartearen atxikimendua, toki-erakunde horren ordezkari naizenez, administrazio elektronikoaren esparruko oinarrizko irtenbideak elkarriz emateko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin sinatutako aipatutako hitzarmenekiko. Hain zuzen ere:

- Estatuko Administrazio Orokorrarekin 2017ko martxoaren 24an sinatutako hitzarmenarekiko, lehenengo klausularen 2. atalean ezarritakoari jarraituz.
- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin 2018ko abenduaren 5ean sinatutako hitzarmenarekiko, lehenengo klausularen 2. atalean ere ezarritakoari jarraituz. Hauek dira aipatutako administrazio elektronikoaren zerbitzuen katalogoan jasotzen diren irtenbide teknologikoak:

- Euskal administrazio publikoen komunikazio-sarea
Red de comunicaciones de las administraciones públicas vascas
- Identifikazio, autentifikazio eta sinadura elektronikoko baliabideak kudeatzeko zerbitzuak
Servicios de gestión de medios de identificación, autenticación y firma electrónica
- Euskadiko Administrazioen Segurtasunerako eta Elkarreragingarritasunerako Nodoa (NISAE)
Nodo de Interoperabilidad y Seguridad de las Administraciones de Euskadi (NISAE)
- Ordainketa-pasabidea.
Pasarela de Pagos

**UROLA
KOSTAKO UDAL
ELKARTEA**

Firmado digitalmente por UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEA
Nombre de reconocimiento (DN): c=ES, o=UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA, ou=Ziurtagiri onartua - Certificado de
reconocido, ou=Entitatearen ziurtagiria - Certificado de
entidad, ou=Condiciones de uso en www.izenpe.com nola
erabili jakiteko, dnQualifier=-cif G20392064, cn=UROLA
KOSTAKO UDAL ELKARTEA, givenName=IGOR, sn=ITURAIN
IBARGUREN, serialNumber=G20392064,
1.3.6.1.4.1.18838.1.1=724449555
Fecha: 2019.04.04 12:24:49 +02'00'

Sin.: Igor Iturain Ibarguren

Urola Kosta Mankomunitateako lehendakaria